

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

[www.ehu.es/
azpidazki](http://www.ehu.es/azpidazki)



EHUREKA AHOLKUAK

21

ERREGISTROA



EUSKALKIAN BAI ALA EZ?

IDATZIZ: unibertsitatean euskara batuan jardun behar dugu idatziz. Hala ere, zure euskalkitik gertuago dagoen eredu estandarra erabili dezakezu idatzitakoa gozatzeko.

AHOZ: eguneroko jardun arruntean langile bakoitzak euskalkiz egin dezake berba. Hori bai, saiatuko da solaskideari ahalik eta traba gutxien egiten. Solaskidearen hizkuntza gaitasunera hurreratuko da ahalik eta gehien.



Informazio gehiagorako:
[Euskaltzaindiaren erabakia](#)
[euskalkien erabilerari buruz](#)





FORMAL ALA INFORMAL?

IDATZIZ: lagun/lankide arteko jarduna ez bada, erabili beti erregistro formala idatzietarako.

AHOZ: lagun/lankide arteko jarduna ez bada, erabili beti erregistro formala ahozkorako. Dena den, kasu batzuetan interesgarri izan daiteke erregistro informala erabiltzea solaskidearekin gertutasuna adierazteko.





HITANOAN BAI ALA EZ?

IDATZIZ: lagun arteko kontuetarako ez bada, ez erabili hitanoa idatziz.

AHOZ: lagun arteko kontuetarako ez bada, ez erabili hitanoa ahoz.



Hitanoa edo **hiketa** [euskaraz](#) hika hitz egiteko era da, [lagunarteko](#) hizkera. Euskarak izenordain bat baino gehiago erabiltzen du, solaskideari dagozkionak: *hi*, *zu* (*xu* ere ekialdeko behe-nafarreraz) eta *berori* (hegoaldean).

Hi esanez gero, [adizkera alokutiboak](#) erabili ohi ditu hiztunak. Adizkera alokutiboetan [aditz jokatuak](#) bigarren pertsonarekiko [komunztadura](#) du, bigarren pertsona hori aditzak adierazten duen prozesuan partaide izan gabe ere: *Peru etorri duk eta jo naik*. ([wikipediatik hartuta](#))